

# Kaixo

2012 UZTAILA / 112. ALEA

*urretxu !*

4. orrian

## BALANCE DEL PRIMER AÑO DE LEGISLATURA

El Gobierno, la oposición y

los ciudadanos dan su opinión

2. orrian

### OPORRETAN ERE, URRET XU HERRI BIZIA

Itsasorik ezean, beste hainbat aukera eskaintzen ditu

10. orrian

### AL-ANON, GRUPO DE APOYO PARA FAMILIA- RES DE ALCOHÓLICOS

El alcoholismo es una enfermedad cada vez más extendida que afecta a todo el núcleo familiar

# Oporretan ere, Urretxu herri bizia

## Udako hilabeteetan ere, adin guztietako jendearentzat aukera anitzak eskaintzen ditu gure herriak

Tradizioz, udak hondartza zoragarriekin, itsasoarekin eta jendez betetako malekoiekin irudikatu izan ditugu ia gehienok. Geografikoki hauek guztiak nahikoa gertu izanda, Urretxuk beste hamaika aukera ere eskaintzen ditu, baita urte sasoi honetan ere; freskatzeko Pagoe-tako igerileku irekia, izadiarekin harremanetan izateko paraje ederrak, haurrak hazi eta dibertitzeko udalekuak, museoak, tabernetako terrazak... hau da, udan ere, herri bizia izan nahi du Urretxuk.

Itsasorik ezean, Pagoetako igerileku irekia izango da Urretxuko udarako gune neuralgikoetako bat. Eguraldia lagun, bertako bainu eta jolasak, eguzki izpiek, eta zergatik ez, baita irakurketek ere –beste urte batez Bibliopiszina zerbitzua eskainiko da, liburuez gain, eguneroko prentsa ere bai han kontsultatu nahi dituenarentzat– denbora gustura pasa-

tzeko aukera emango dute, autoa apartatzeko pazientzia edo diruzorroa galdu behar izanik gabe.

Urte guztiko lanak eta ikasketak amaituta, hurrek aukera anitzak dituzte oporrez gozatu ahal izateko. Azken urteetako ohiturari jarraituz, 300 ume inguruk eman dute izena udaleku irekietan. Hamarnako talde bakoitzeko begirale baten zaintzapean, era guztietako ekintzak (irteerak, esku lanak, jolasak, kantak...) egin dituzte uztailean zehar hiru asteetan, goizeko hamarretatik ordu batetara.

Baina dena ez da aisialdi soilak izan, Secundino Esnaola Musika Eskolak udaleku musikalak ere antolatu ditu eta. Bertan, zirkua gai nagusi eta ardatz bezala hartuta, beste 52 hurrek, bost irakasleren gidaritzapean, musika, dantza, eta antzerkia landu dituzte, amaieran

## Kaixo *urretxu* !

2012 UZTAILA / 112. ALEA

Ale honetako laguntzaileak: Itziar Agirre, Javier Otermin Gorka Azkarate, Miren Castillo eta Oihane Zabaleta.

Argazkiak: Gorka Azkarate, udal artxiboa eta Ur Artola

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Ur Artola Probanza

Koordinatzailea: Jon Ormazabal

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldiakaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net) helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net).

Labeaga Aretoko pista nagusian jaialdi erraldoi bat eskainiz.

Nazioarteko elkarkidetzak ere izan du bere lekua, azken bederatzi urteetan bezala, Saharako bederatzi haur gure artean ari baitira uda igarotzen, Oporrak Bakean programaren barruan. Hare-Hai-zea erakundearen ekintzaz eta herriko familien elkartasunari esker, 8-12 urteko ume hauek euren basamortuetako errefuxiatu guneak hilabete batzuz utzi eta oporrak gure artean pasatzen dituzte, hamaika ekintzetan parte hartuz.

Baina horren gazteak ez direnek ere badituzte euren aukerak. Herrietako festak izaten dira udako beste klasikoetako bat eta Urretxukoak heltzeko uda amaierara arte itxaron beharko dugun arren, bada hauek gogoz prestatzen ari denik. Izan ere, Euskal Jaiak garrantzia berezia du festa horietan eta dagoeneko hasiak dira euren karrozak prestatzen. 11 koa-drilek eman dute izena eta hauetariko askok gainera, uztaillean zehar ematen ari diren materialak erabiltzen jakiteko ikastaroan parte hartzen ari dira. Gogoz dabilta eta aurten sekula baino lehenago astekoak dira euren karrozak prestatzen. Abuztu erdialderako aldarmioak, eskaiolak, egurrak, mailuak eta iltzeak dantzan ariko dira Mugitegi inguruan.

Santa Barbara eta bertako Aterpetxea ere adin guztietarako aisialdi gune garrantzitsua izango da egun hauetan. Bertako inguru ederrez haratago, tabernako maizter berriek hainbat ekintza antolatut dituzte udarako. Lehen, abuztuaren bian egin zen umeentzako hosto bilduma eta herbarioa egiteko ikastaroa.

Uztailaren 22an, Euskal Herriko txoko

## UDALETXEA

Abuztu guztian zabalik, ohiko ordutegian  
**7.30tik 15.00etara**

## ALDIRI KIROLDEGIA

Abuztuaren 4tik 21era itxita

Astelehenetik Ostiralera: **08:00-22:00**

Larunbata: **09:00-14:00 / 16:00-20:00**

Igandea: **09:00-14:00**

## URRELUR. Urretxuko Mineral eta fosilen museoa

Abuztuak 1, 2, 3, 6 eta 7 eta abuztuaren 27tik 31ra, **10:00-12:30** zabalik

## AIZPURUNEA KULTUR ETXEA

Abuztuak 1, 2, 3, 6 eta 7 eta abuztuaren 27tik 31ra, **09:00-14:00** zabalik

## AIKUR-ERLE MUSEOA

Abuztuaren 6tik 27ra itxita

Larunbat, igande eta jaiegunak: **11:00-14:00**

Lanegunetan: **soilik aurrez eskatuta**



guztietatik etorritako ia 20 ekoizlek, euren produktu ekologikoak erakutsi eta saldu zizkiguten Lizeoko patioan Urretxuko Nekazaritza Ekologikoaren IV Azokan.

Urrelur eta Aikur museoak, alde zaharreko kale eta tabernak eta batez ere urretxuarren konpainiak, uda bikain batez gozatzeko hamaika aukera eskaintzen dituzte. Goza itzazu!!!

# Valoración del primer año

## 11 ideas desarrolladas y con recorrido por realizar

Superado el primer año de legislatura, el Gobierno municipal entiende que este es un buen momento para realizar un balance de lo desarrollado en este 25% de legislatura y evaluar las líneas que se están siguiendo. Asumiendo que el programa electoral es una especie de con-

trato acordado con la ciudadanía, los miembros del equipo de Gobierno se sometieron a una especie de examen realizada ante los urretxuarras que mostraron su interés. Mediante el método Pecha cucha, expusieron su análisis y recogieron el feed-back de los asistentes.

# 1

### PROMOVER UN MUNICIPIO DE Y PARA TODAS LAS PERSONAS

Uno de los primeros trabajos realizados fue la elaboración, junto al resto de las formaciones políticas del Ayuntamiento, de un Plan Estratégico que fue redactado para diciembre de 2011.

Este plan recoge la visión acordada para los cuatro años de legislatura, marcando seis objetivos estratégi-

cos y 123 actuaciones que están recogidas en un plan de acción.

Euskara, igualdad, medio ambiente y participación ciudadana son los ejes transversales en todas las áreas municipales, tanto hacia dentro de la casa como hacia el exterior.

# 2

### MODELO DE MUNICIPIO PARTICIPATIVO Y ACTIVO

Se ha diseñado un plan de participación integral en el que están tomando parte 80 personas y entidades sociales, culturales y deportivas de Urretxu.

Se han diferenciado 9 sectores: Medio ambiente, euskara, igualdad, cultura, baserritarras, barrios, deportes, tercera edad y juventud.

Todos han realizado una valoración positiva del proceso y hay muchas ganas de repartir las cotas de poder entre la ciudadanía.

Se han puesto en marcha cuatro foros en los barrios de Santa Barbara, San Martín, Aparicio y Mundo Mejor.

# 3

## GESTIÓN MUNICIPAL TRANSPARENTE Y ABIERTA

Se está trabajando en la coordinación entre las diferentes áreas municipales y se sigue modernizando y optimizando la gestión y el funcionamiento interno. Existe un plan de comunicación interno vertical, horizontal y de 360°.

Puesta en marcha de un proceso de expedientes mediante e-administración,

para que el ciudadano pueda realizar los trámites desde casa.

Campaña “Las cuentas claras”: En la coyuntura económica actual, uno de los ejes de la legislatura es el crear diferentes canales de información para aportar los datos económicos y proyectos de futuro.

# 4

## URBANISMO

Tras más de 9 años de alegaciones, recursos, atrasos y problemas, se han aprobado las Normas Subsidiarias de Urretxu.

No obstante, los planteamientos municipales deben responder a las necesidades sociales de sus ciudadanos, por lo que se sigue traba-

jando con la ordenanza de viviendas vacías, ya que mucha gente, especialmente los más jóvenes, no pueden acceder al mercado de vivienda nueva.

# 5

## DESARROLLO RURAL

Se ha impulsado la comisión de baserritarras para valorar y fomentar el trabajo realizado en la protección y la salvaguarda de nuestros bosques y pastizales, garantizando su aprovechamiento rural y posibilitando a su vez su disfrute general.

Con la campaña “Bertatik bertara” se pretende fomentar e impulsar el consumo de productos ecológicos y autóctonos de nuestros baserritarras, con lo que tanto productores como consumidores pueden disfrutar de un comercio más justo y más saludable.

# 6

## BIENESTAR SOCIAL

Se está ejecutando una política municipal que trata de garantizar un nivel de vida digno para la ciudadanía con necesidades básicas.

Creación de ayudas económicas municipales: Tras los recortes de ayudas sociales por parte del Gobierno Vasco, se ha incrementado

la partida presupuestaria de ayudas individuales en un 67,3%.

Gracias a la colaboración ciudadana, se ha habilitado un local para uso del banco de alimentos.

# 7

## JUVENTUD

Mediante el proceso de participación ciudadana se han impulsado los modos organizativos y de respeto a las decisiones que toman los jóvenes sobre sus problemas y necesidades.

Gazte Bidean, Gaztetxea, Carroceros y distintas cuadrillas han cre-

ado un grupo de trabajo con el compromiso de dar respuestas a las necesidades de locales, vivienda, desempleo y actividades musicales que han detectado.

# 8

## SOCIOCULTURAL

Subida del 27% del número de abonados en los servicios deportivos, con un aumento en los ingresos de 10.000 euros.

El museo Urrelur ha conseguido el certificado de turismo.

Se ha creado una mesa de cultura

con 16 agentes diferentes y también una mesa de turismo que por vez primera reúne a agentes privados y públicos a nivel mancomunado.

Urge mayor sensibilización hacia el uso del euskara.

## 9 MEDIO AMBIENTE

Planificación y control de las medidas necesarias para gestionar el nivel de la calidad del aire. Asimismo, se han hecho aportaciones al plan elaborado por el Gobierno Vasco (PACA).

Se ha avanzado en la gestión de los residuos con la implantación

del quinto contenedor para la recogida de materia orgánica. Se está llevando un control exhaustivo de los resultados de esta experiencia para crear foros de concienciación e información continua y comparativas con los resultados del resto de municipios.

## 10 COOPERACIÓN CON ZUMARRAGA

Al margen de las diferencias y las distintas ideosincrasias de los dos municipios, Urretxu y Zumarraga están condenados a entenderse. Por ello, trabajamos conjuntamente las necesidades estratégicas de ambas localidades: tráfico, seguridad ciudadana, euskara, cul-

tura, juventud, deportes, educación y limpieza viaria.

Para ello se lleva una comunicación fluida y una actitud proactiva con el pueblo vecino.

## 11 MANCOMUNIDAD

En esta legislatura, a Urretxu le corresponde la presidencia de la Mancomunidad, UGLE y UGGASA. En septiembre UGLE incorporará el ciclo de técnico ortoprotésico a su oferta educativa, una titulación que, a nivel del Estado español, solo se ofrece en Sevilla, Valencia, Barcelona y Santiago de Compostela.

Está en marcha un estudio de los servicios públicos, entre ellos los deportivos, con el objetivo de implantar la kirol-txartela única para las localidades de , Zumarraga, Legazpi, Ezkio Itxaso y Urretxu.

# Herritarren ebaluazioa

**Udalgintza politikariek eta herritarrek elkarrekin egin beharreko zerbait dela sinetsita, Udaleko Gobernu Taldeak herritar guztiak gonbidatu zituen lehen urte honetako ebaluazioa elkarrekin egiteko. Uztailaren 12an udaletxeko harrera aretoan egindako saioan, aurrez aipatutako hamaika puntuak modu positiboan edo negatiboan definitzea eskatu zitzaien parte-hartzaileei, oro har modu baikorrean ebaluatu zirenak.**

**Baina batzarrera gerturatutakoek euren kezka, zalantza eta iradokizunak plazaratzeko aukera ere izan zuten taldeetan egindako lanketa batean. Hona hemen bertan esandakoen artean nabarmenenak.**

- Udaletxea eta herritarren arteko komunikazio kanala egon badagoela nabarmendu zen, hau da, informazioa zabaldu eta herritarrengana iristen dela azaldu zen, baina kasu askotan informazio horietan sakontasuna falta dela azpimarratu zen.

Dena dela, bide horretan lehen mugarririk direla goraipatu zen. San JoaNETAKO festetako programan ekitaldi bakoitzaren aurrekontu zehatza jasotzea jorratzeko dagoen bidearen ispilu izan

behar dela esan zuten.

- Urtebeteko jarduerarik nabarmenen artean, bederatzi urteren ondoren arau subsidiarioak onartu izana goraipatu zen. Hori bai, orain artekoari buruzko gogoeta egitea eta aurrera begira proiektuak garatzeko orduan ahalik eta adostasun mailarik handiena lortzea galdegin zuten zenbait herritarrek.

Horrez gain, partehartze prozesua modu integralean bideratzeak udal politika ikusteko beste optika bat eskaini izanak ere balorazio positiboa izan zuen, gertutasun sentsazioa biderkatu duelako.

Azkenik, bosgarren edukiontzia ezarpena pausu garrantzitsutzat jo zen, hondakinen kudeaketa eraginkorrean lehen mugarri gisa.

- Hobetzeko dauden ekintzen artean, parte-hartze prozesua bera garatu eta sakontzea galdegi zen, herriko elkarteetan izaera indartu eta garai hauetan sekula baina beharrezkoagoa ikusten den auzolaneko dinamikak bultzatzea.

Komunikazio kanal horretan sakontzeko pausuak ematea ere behar beharrezkoa ikusten da herritarrek eguneroko politikan euren ahotsa izan dezaten.

Azkenik, bizi dugun krisi ekonomiko latz honek eragiten dituen bazterketa eta pobrezia kasuen aurrean, Udalak ahaleginak egitea eskatu zen, finantza merkatuaren porrotaren ondorioak babesik gutxien duten pertsonak pairatu behar izan ez ditzaten.



## Hamaikabat



### Bildu encorsetado

Bildu está sufriendo la herencia de la nefasta gestión de ANV, especialmente un corsé económico anegado por sus compañeros y un diseño urbanístico irreal.

Y no se libera del corsé porque sigue obcecado en un planteamiento urbanístico de Urretxu que en nada tiene que ver con el momento de crisis que estamos padeciendo y no vislumbramos apuesta alguna municipal ni comarcal en materia de empleo que hoy es prioritario.

Bildu sólo pretende un apoyo incondicional a sus ideas y, en caso contrario, como en normas subsidiarias o la exitosa implantación del quinto contenedor –gracias a la oposición– arremete con crueldad anhelando la mayoría absoluta. Por ello, apelamos a un cambio de actitud, a que cuenten con el resto de partidos y a centrarse en los problemas de Urretxu.

*Oharra: Kaixok udaleko alderdi guztiei eskatu zien balorazio hau, baina PSOE-ri ezinezkoa egin zitzaion ezer bidaltzea.*

## EAJ-PNV



### Bilduren hitzak, politikak; ekintzak, ez hainbeste

Urte honetan hitz polit ugari entzun dira Udalean (ez beti). Baina dena ez da hain polita izan; izan ere, hitz politiek ez dute balio, ekintzetan isladatzen ez badira.

PARTE-HARTZEA. Guztiona eta guztiontzat: Udalak parte-hartzearen alde dagoela esan, baina herriaren ordezkarien parte-hartzea nahi duen bezala erabiltzen du.

GARDENTASUNA. Benetakoa eta arlo guztietan: Udalak hainbat gauza argitu behar zituen, besteak beste: Foru Aldundiak Udalari lagundu behar izan dio, ekonomia-egoera zaila dela eta; era berean, elkarte publikoaren egoera azaldu beharko du.

ADOSTASUNA. Bilduk errespetatu behar ditu gustuko ez dituen akordioak. Hots; udalbatzarraren gehiengoaren eskariak kontuan hartu. Adibidez Lizeoa.

EAJ-PNVko zinegotziok lanean jarraituko degu hitzak benetako ekintzetan bihurtzeko.



**Gorka Azkarate**  
Bertsolaria

# AL-ANON, grupo de apoyo para familiares de alcohólicos

**Entre otros muchos grupos, la casa de cultura de Urretxu acoge en sus locales al grupo Santa Barbara-AL ANON, una asociación que pretende ayudar y orientar a los familiares del entorno en tan duro trance**

Al-Anon, la asociación de ayuda para familiares y amigos de alcohólicos, nace en América por necesidad social, unos 15 años después de haberse formado el movimiento Alcohólicos Anónimos (AA). Los afectados por el alcoholismo acudían a las sesiones de AA, y al ser estas sesiones a puerta cerrada, los familiares se quedaban fuera, por lo que empezaron a hablar entre ellos, siendo aquellas conversaciones el germen de lo que hoy se conoce como Al-Anon.

Al principio AA y Al-Anon fueron un solo grupo pero después se separaron, ya que el enfoque de las reuniones es diferente: en Al-Anon se habla de "24 h de serenidad", mientras que en AA se habla de "24 h de sobriedad". El programa se compone de 12 pasos, que sirven para que el familiar conozca mejor su responsabilidad, ya que es habitual que se asuman responsabilidades o culpas que no corresponden.

No se trata de saber cómo el alcohólico puede dejar de beber, se trata de aprender a actuar con serenidad ante esa situación. Para los familiares, el descubrir que la OMS (Organización Mundial de la Salud) tiene catalogado al alcoholismo como una enfermedad, y que la AMA (Asociación Médica Americana) lo tiene catalogado como enfermedad familiar, les permite tomar una nueva perspectiva sobre la situación personal que están atravesando. El trato para con el afectado es diferente cuando se llega a ver eso. El alcoholismo es, al fin y al cabo, una enfermedad de la familia y un cambio de actitud en los familiares puede ayudar a la recuperación de todos.

El pilar fundamental del grupo es el anonimato. Se puede confiar en el grupo, y al final el familiar va expulsando todo el malestar. Lo difícil es admitir que hay un problema que afecta a la convivencia. Muchas veces, además, con que el afec-

tado deje de beber tampoco se soluciona todo, porque queda un poso de todo lo vivido.

En Gipuzkoa hay 16 grupos de Al-Anon, y uno en Urretxu, el grupo Santa Barbara de Al-Anon. El grupo se reúne todos los viernes a las 7 de la tarde en la casa de cultura de Urretxu y tiene las puertas abiertas para todo aquel que sienta necesitar ayuda por sufrir de cerca algún caso de alcoholismo. El grupo cuenta con un número de teléfono (650265963) y una página web donde se puede encontrar más información ( "<http://www.al-anonespana.org>" [www.al-anonespana.org](http://www.al-anonespana.org)).

Al-Anon, alkoholikoen senitarteko eta lagunei laguntzeko elkarte, Estatu Batuetan sortu zen, Alkoholiko Anonimoak (AA) taldea sortu eta 15 bat urte beranduago. Alkoholismoaren gaitzak harapatutako gaixoak AA taldearen bileretara joan ohi ziren eta senitartekoak kanpoan geratzen ziren zain. Euren arteko estraineko hizketaldi haiek izan ziren Al-Anon taldearen ernamuina.

Hasera batean talde bakarra ziren AA eta Al-Anon, baina gerora banatu egin ziren, bilerak fokatzeko modua ezberdina baita alkoholismoak jotako gaixoen eta euren senitarteko edo lagunaren kasuan: "24 orduko lasaitasunaz" hitz egiten da Al-Anonen, eta "24 ordu alkoholik edan gabe" da AA-ko lema. Hamabi urrats dauzka programak, senitartekoak bere erantzunkizunak hobeto ezagutu ditzan baliagarriak direnak, ohikoa baita senitarteko batek berari ez dagozkion erantzunkizun edo erruak bere bizkar gainean hartzea.

Programaren helburua ez da gaixoak edateari nola utzi diezaiokeen asmatzea, egoera horien aurrean lasaitasunez jotkatzen ikastea baizik. Senitartekoentzat, adibidez, OME-rentzat (Osasunarentzako Munduko Erakundea) alkoholismoa gaitz bat dela, edo AME-rentzat (Amerikako Medikuntza Elkarte) familiariko gaixotasun bat dela entzute hutsa, pairatzen ari diren egoera pertsonalaren gaineko beste perspektiba bat hartzeko lagungarria da, gaixoarekiko tratua aldatzeraino. Familia osoari eragiten dion gaitza da azken finean, eta familiako kideen jarrera aldaketa batek giroa hobetzen lagundu dezake.

Anonimatua da taldearen zutabe nagusia. Taldekideengan erabateko konfiantza izan daiteke, eta horrela poliki-poliki barruan gordetako guztia kanporatzea errazago izaten da. Elkarbitza baldintzatzen duen arazo bat dagoela onartzea da gauzarik zailena. Askotan, gainera, gaixoak edateari utzita ere ez dira arazo guztiak konpontzen, bizi-tako guztia barruan geratu daiteke eta.

16 talde dauzka Al-Anonek Gipuzkoan, eta bat Urretxun, Al-Anon Santa Barbara taldea. Ostiraletan elkartu ohi dira taldeko kideak, 7etan Urretxuko kultur etxean. Alkoholismo kasuren bat gertuan bizi duen edonorentzat zabalik dauzka ateak. Taldearen web orrian aurkitu daiteke informazio gehiago ("<http://www.al-anonespana.org>" [www.al-anonespana.org](http://www.al-anonespana.org)), eta baita 650265963 telefonora deituz ere.

URRETXUKO

# I. OLINPIAR JOKOAK

*irailaren 21ean*

***Izen ematea:***

*(14 urtez gorakoentzat)*

**Irailaren 10etik 14ra**

Urretxuko kultur  
etxean eta Gazte  
Bideanen egoitzan

Hasi entrenatzen  
eta eman izena,  
**sariak egongo  
dira eta.**

